

"Nafarroako Autonomia Erkidegoko Gazteriaren Kontseilua" sortu zuen apirilaren 18ko 110/86 Foru Dekretua, 53. NAOn argitaratu zen, 1986/04/28an. Abenduaren 27ko 300/88 Dekretuak izena aldatu zuen, eta "Nafarroako Gazteriaren Kontseilua" izena hartu zuen. 5., 6. eta 8. artikulua ere aldatu zituen.

Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 11/2011 Foru Legearen xedapen indargabetzaile bakarrak 110/1986 Foru Dekretuaren 1., 2., 3. eta 4. artikulua indargabetu zituen.

35 urteko antzintasuna duen, eta guztira 13 artikulutik lau artikulua indargabetu eta 3 aldatuta dituen Foru Dekretu baten aurrean gaude.

Nafarroako Gobernurako 2019-2023ko Akordio Programatikoaren 3.3 atalak Nafarroa Soziala eta Ongizatea jorratzen ditu. Atal horretako 90. puntuak honako hau dio: "Araudia Nafarroako gazteen eta lurraldeen elkarten errealitate berrira eguneratzea, egokitzea eta garatzea, bereziki Gazteriaren Foru Legea (apirilaren 1eko 11/2011), parte-hartzea eta asoziazionismoa maila eta eremu geografiko guztietan bermatuz, eta Gazteen Tokiko Kontseiluak arautuz. Era berean, gazteak aktibatze berriazko programak sortuko dira".

Gazteriari buruzko apirilaren 1eko 11/2011 Foru Legeak berak, NGK zer den eta haren xedea eta eginkizunak definitzen ditu 35. artikuluan; haren osara, antolaketa eta funtzionamendua zehaztea geroko erregelamendu bidezko zehaztapen baterako uzten du.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru Sektorre Publiko Instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Legearen 133.1 artikulua ezartzen duenez, lege-aurreproiektu bat edo erregelamendu-proiektu bat egin aurretik, lege-aurreproiektuetarako sustatu ahal izango da, eta erregelamendu-proiektuetarako kontsulta publiko bat sustatuko da, Nafarroako Gobernu Irekiko Atariaren bidez, non etorkizuneko arauaren eraginpean egon daitezkeen subjektuen eta erakunde adierazgarrien iritzia jasoko diren, konpondu nahi diren arazo, hura onartzeko beharra eta egokitasuna, arauaren helburuak eta egon daitezkeen ordeko konponbide erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik inguruan.

Bestalde, maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta Foru Gobernu Onari buruzkoak, 21. artikuluan ezartzen du Nafarroako administrazio publikoek foru lege aurreproiektuak eta erregelamenduzko proiektuak egin aurretik egin beharreko kontsulta publikoak argitaratu behar dituztela.

Aipatutako aurreikuspenak betez, hala uste duten pertsonak, erakundeak eta elkarteak proiektatutako arau-proposamenari buruzko ekarpenak bidal ditzakete posta elektronikoko postontzi honetara:

[participacionjuvenil@navarra.es](mailto:participacionjuvenil@navarra.es)

Aurkezteko azken eguna 15 egun baliodunekoa da, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azaldutakoagatik, beharrezkotzat jotzen da administrazio-makineria aktibatzea, dekretu berri bat egiteko neurri egokiak har daitezten. Dekretu horrek inplikaturako alderdi guztien laguntza izango du.

**1. Konpondu nahi diren arazoak**

- NGKren funtzioak eta ordezkaritza eguneratzea
- Funtzionamendu-araubidea eguneratzea

**2. Onesteko beharra eta egokitasuna**

- NGK Nafarroako beste gazte-egitura batzuei irekitzeko beharra ebaluatzea.
- CJN-NGKri buruzko araudia bateratzea

**3. Arauaren helburuak**

- Alderirik garrantzitsuenak, aldaezinenak eta denboran iraunkorrenak direnak biltzea.
- Denboraren poderioz alda daitezkeen dekretuko alderdiak garatuko dituen araudiaren edukia adostea.
- Kontseiluaren erregelamenduak definitzea

**4. Irtenbide alternatibo posibleak:**

Ez da beste irtenbide erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik aurreikusten.

Agiri hau interesdunen eskura jartzen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Gobernu Irekiaren Atarian, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua 1. eta 4. zenbakietan xedatutakoaren arabera.